# KAIXO

URRETXUKO UDAL ALDIZKARIA



## Bertso eskola osasun betean

## Udal berria martxan

## Esteban Larrañaga soinuaz enamoratua

93. ALEA
2007ko uztaila




Ale honetako laguntzaileak:
*JESUS MARI ALBERDI*
*FCO. JAVIER AGUADO*
*KOLDO ARGANDOÑA*
*GORKA AZKARATE*
*IRENE CALVILLO*
*MIREN CASTILLO*
*JON CASTRILLO*
*ESTITXU GOMEZ*
*ANA ISABEL ITURBE*
*IDOIA NARBAIZA*
*JABIER OTERMIN*
*MAITE QUEVEDO*
*KISKITZA UGARTEBURU*
*Mª CARMEN VIEDMA*
*Azala: GORKA AZKARATE*

Kaixoko Argazkilaria:
LUIS ANGEL TELLEZ

Lege Gordailua:
SS/678/93

Konposaketa:
ERROTAPRINT

Inprimaketa:
Iparragirre, S.A.

Kopurua:
3.300 Ale

KAIXOk ez du bere gain hartzen derrigorrez aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

*KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas*

Ez bazara Urretxun bizi eta **KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu**, emana zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

----

*Si no vives en Urretxu y **quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón**, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net*

# aURKIBIDEA

KAIXO
*93. alea - 2007ko uztaila*










3_UDAL BERRIA
7_EUSKARA ZERBITZUEN ESKAINTZA
KASUMAY_8
10_BERTSO ESKOLA
13_KALEKO IRITZIAK
SAN JUAN ARGAZKITAN_14
16_ELKARRIZKETA: ESTEBAN LARRAÑAGA
LABURRAK_20
GAZTELEKU BERRIAK 5 URTE_22
KAIXO TXIKI_24
26_REMEMORANDO EL PASADO
27_UDAL ZERBITZUAK
_TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIAK



# udal berria martxan

Joan zen maiatzaren 27ko hauteskundeen ondorioz sortutako Udal berriaren hainbat organotarako izendapenak onartu ziren uztailaren 16an egindako osoko bilkuran.

Horrela, Tokiko Gobernu Batzarra EAE-ANVko lau kideek osatuko dute: Iñaki Zabalak, Lourdes Belokik, Gorka Garmendiak eta Marian Ostizak. Gainontzeko partiduek gobernu taldean ez sartzea erabaki dute. Halaber, udal batzorde informatzaileen osaketa zehaztu zen. Lau sail nagusietan banatu dira:

- OGASUNA ETA HIRIGINTZA / Lehendakaria: Iñaki Zabala
- GARAPEN IRAUNKORRA / Lehendakaria: Lourdes Beloki
- ONGIZATEA / Lehendakaria: Marian Ostiza
- KULTURA / Lehendakaria: Gorka Garmendia



*Ondoko koadroan ikus daiteke arlo bakoitzean jorratuko diren gaiak eta izango diren eginkizunak.*

| LEHENDAKARIA | BATZORDEAK | | EGINKIZUNAK |
|---|---|---|---|
| Iñaki Zabala | OGASUNA eta KONTUEN BATZORDE BEREZIA | | - Aurrekontuaren proiektua egitea eta horren kudeaketa.<br>- Udal ondasunak / Ordenantza fiskalak |
| | HIRIGINTZA | Hiri antolamendua Etxebizitza | - Hirigintza Plangintzarako Kontseilua sortu.<br>- Etxebizitzaren arazoari lehentasuna: **beharrak** aztertu, etxebizitza sozialari prioritatea, etxebizitza hutsak merkaturatzeko neurriak, etxebizitza zaharren eraberritzeko urratsak.<br>- Lurzoru publikoa eskuratu. |
| | | Obrak / Zerbitzuak, Mugikortasuna / Trafikoa | - Udal obrak.<br>- Zerbitzu kontzertatuen jarraipena.<br>- Mugikortasun [illegible] kontsideratzen diren neurriak martxan jarri.<br>- Gune urbanoan [illegible] bitartekoak jarri.<br>- [illegible] irisgarritasuna bermatu. |
| Lourdes Beloki | GARAPEN IRAUNKORRA | Industria, Merkataritza, Enplegua | - Bertoko enpresa txikiak eta industriak sustatu.<br>- [illegible] Garapen agentziarekin lurzoru industriala kudeatu.<br>- Komertzio txikia indartzeko laguntzak.<br>- Enpleguaren kalitatearen aurrean [illegible] |
| | | Nekazaritza Feriak | - Nekazaritza eremua indartzeko planak martxan jarri.<br>- Nekazal parte hartzea duten jaiak (Santa Lutzia, ...) |
| | | Ingurumena Agenda 21 | - Ingurugiroari lotuta, Agenda 21 indartu. Hondakin kudeatzeko planak, konpostajea, zaborren tratamendu alternatiboak, energia berriztagarriak, ...<br>- Ingurugiroa hobetzeko iniziatibak |
| Marian Ostiza | ONGIZARTEA | Gizarte zerbitzuak, Osasuna, Jubilatuak, Emakumea | - Kontseilu Soziala sortu eta kudeatu.<br>- Behar sozialen diagnosia egin premia larriak identifikatzeko.<br>- Herri osasuna (prebentzioa)<br>- **Emakumea**: tratu txarren prebentzioa, berdintasun plana, lan munduan integratzeko laguntza<br>- **Etorkinak**: integrazio planak, prestakuntza martxan jarri, aholkularitza juridikoa eman, ikastaroak, laguntza, elkarrengana hurbiltzeko ekintzak.<br>- **Hirugarren adinekoak**: bizi baldintza [illegible] duinak bermatu, eragile positibo kontsideratzeko eragileak [illegible]<br>- **Ezintasun fisiko eta fisikodunak**: [illegible] |
| Garka Garmendia | KULTURA | Kultura Euskara Jaiak | - Urretxu herri euskalduna, integratzailea, dinamikoa eta bizia izateko ekintzak bultzatu.<br>- Kultur ekintzen programazioan [illegible] sortu eta finkatu. Herrian dauden taldeen arteko elkarlana bultzatzeko bideak eskaini.<br>- Gazteriaren [illegible] beharrei (Gaztelekua, musika lokalak...) eta [illegible] eskubideak errespetatu.<br>- Herriko festak, ikuskizun eta jaietan [illegible] eta euskalduntasuna bultzatu hiritarren eta kuadrillen parte hartzea [illegible].<br>- Eskualdeko kultur [illegible] arteko elkarlana eta koordinazioa indartu.<br>- Euskararen normalkuntzarako [illegible] sendotu.<br>- Udal jardunean euskararekiko zerbitzua bermatzeko bideak jarri.<br>- Udal bi liburutegiak kudeatu: liburutegia, Kultur etxea. |
| | | Hezkuntza Kirola Aisia | - Ikastetxeen arteko koordinazioa bultzatu.<br>- Helduen hezkuntza [illegible] bultzatu.<br>- Kirol azpiegituren diagnosia, [illegible] proposamenak.<br>- Herritarren artean kirola egitea sustatzeko plana.<br>- Urretxu eta Zumarragaren artean kirol zerbitzuen eskaintza koordinatu.<br>- Aisialdiko [illegible] hausnarketa prozesua bideratu.<br>- [illegible] garatu. |

*Udal berri honen jarduna gidatuko duten hainbat irizpide ezarri dituzte, hala nola:*

1. **Udala Erakundea**: Urretxuko **Udala herritarren zerbitzura eta esanetara dagoen erakundea da**. Udaleko aginte organoek **herritarren beharrak** eta nahiak **zehaztea** dute lehenbiziko zeregina eta ondoren, taxuz eta gardentasunez premia eta nahi horiei erantzuten dieten ekintzak kudeatzea.

2. **Herritarren parte hartzea**: Demokraziaren zutabe nagusitzat jotzen da herritarren hitza eta parte hartzea. **Herritarrenganako gertutasuna sendotzea**.

3. **Funtzio soziala**: Udalak funtzio soziala du. Arlo pribatuak gizartearen talde eta norbanakoei eskaintzen ez dizkien bitartekoak, **laguntza eta babesa** egituratzea eta **ematea da erakunde publiko honen lehentasuna**.

4. **Hizkuntza tratamendua**: **hizkuntza sendotzeko urratsak** emango ditu **gizarte dinamiko eta irekiagoaren norabidean**.

5. **Konponbiderako lehentasun politikoa**: Bizi dugun **gatazka politikoari konponbideak bilatzeko subjektu aktiboa** izan nahi du Udal honek. Ildo honetan, **"Ahotsak" Emakume Taldearen** 2006ko Apirileko Adierazpenean jasotzen den **filosofia gurea egiten dugu**.

6. **Gatazka politikoaren ondorioz emaniko gertaeren inguruko irakurketa adostua.**

## TALDEEN IRITZIA



IÑAKI
ZABALA
BENGOETXEA



M.ª LOURDES
BELOKI
GOENAGA



GORKA
GARMENDIA
ALBARRACIN



M.ª ANGELES
OSTIZA
MENDIA

EAE ANV

Gure borondatea, Urretxuko udala denokin batera kudeatzea zen, herritarren beharrei eta nahiei hobeto erantzuteko. Kanpoko arrazoiak tarteko edota denbora gehiagoren beharragatik ez da posible izan, edo ez dugu lortu hori horrela izatea.

Urretxuko eta urretxuarren beharretarako gobernu programa ona egin dugulakoan gaude. Hala esan digute EA, PSE eta IU alderdiek eta era berean, alderdi hauen hitza daukagu gobernu programa betetzen laguntza osoa emango digutela.

PNVkok izan dira gurekin ez dutela kolaboratu nahi esan diguten bakarrak.

Besterik gabe, hau da daukaguna eta egoera honetan herri hau gobernatzeko determinazio osoa daukagu eta nahiko indar ere bai. Jende asko eta ona daukagu lanerako prest, hainbeste maite dugun herri hau behar duen eta merezi duen egoeran jartzeko.



JOSE MARI
LETE
AZPIAZU



JOSE ANGEL
LIZARRAGA
ZABALETA



ONINTZA
MENDIA
PEINADO

eusko alkartasuna

Legealdi honetan oso erronka garrantzitsuei aurre egin beharko zaie Urretxun. Etxebizitza sozialak eraikitzea eta lurzoru industriala areagotzea dira horietako batzu, ahaztu gabe erdiko kaleetako trafikoa arintzeko beharrezkoa den goiko bide berria eta, era berean, udalak -alderdi guztien oniritziarekin- eta ikastolak sinaturik duten hitzarmena Elizalden ikastetxe berri bat sortzeko.

EAk udal gobernutik kanpo gelditzea erabaki du gure ustez alkateak Urretxurako duen proiektua ez duelako zehaztu. Azken urte hauetan gure herria gidatzeko izan dugun erantzukizunari eutsiko diogu gaur egun ere bai, hau da, alkate berriari laguntza eskainiko diogu eta gure babesa izango du proposatzen dituen egitasmoak bidezkoak iruditzen bazaizkigu, elkarlanerako ateak irekita utziaz. Horregatik, nahiz eta udaleko batzorde egiturarekin guztiz ados ez egon, ez dugu oztoporik jarri eta batzorde guzti horietan lanean arituko da Eusko Alkartasuna.



GEMA ARANZAZU ZABALETA ARETA



JOSE LUIS CANTERO MORCILLO



AMANDA PASTOR TORNERO

Comienza una nueva legislatura y lo hacemos en primer lugar agradeciendo cada uno de los votos recibidos para tener tres concejales. Ya anunciamos en campaña electoral, que se había acabado una forma de gobernar, ganara quien ganara las elecciones. Y teníamos razón. La sociedad de Urretxu ha querido dar una representación equilibrada y atomizada a todos los partidos políticos que hemos salido elegidos. Y nos ha dado un mensaje: que nos entendamos. Por eso, una vez conformado el Gobierno municipal, en minoría, queremos decirle al pueblo de Urretxu que nosotros no seremos como "el perro del hortelano" sino que colaboraremos en positivo en aquellos asuntos que beneficien la vida de nuestros conciudadanos y resuelvan sus problemas. No formaremos parte del Gobierno pero trabajaremos por el buen Gobierno y la convivencia.



ITZIAR AGIRRE BERRIOTXOA



ANGEL ERRAZU GARATE

En EAJ-PNV, afrontamos esta nueva legislatura desde la oposición. ANV ha planteado un programa de gobierno muy genérico, y finalmente, no ha conseguido atraer a ningún otro partido al gobierno. Urretxu necesita de acuerdos para avanzar, y en nuestra opinión, cualquier acuerdo de gobierno necesitaba unos mínimos más detallados que los que se planteaban, tanto en proyectos concretos para cada área (p.e.Irimo) o comisión, como en temas como las Normas Subsidiarias o Pacificación, y en este momento, tal y como se ha planteado, ese debate no ha sido posible. Sin embargo los concejales de EAJ-PNV vamos a ofrecer nuestro trabajo y nuestra experiencia adquirida en los últimos cuatro años. Estaremos trabajando y apoyando aquello que creamos es bueno para la ciudadanía de Urretxu. Y en lo que creamos que no lo es, procuraremos exponer nuestra postura y tratar de convencer. Pediremos información, transparencia, y participación para que los acuerdos lleguen a Urretxu.

El resultado de las últimas elecciones nos cogió un poco por sorpresa, por otra parte, sorpresa agradable. No esperábamos un cambio tan importante en el ayuntamiento, con un descenso tan significativo tanto en votos como de representación por parte del anterior equipo. Dicho esto, y dado que se nos pide nuestra opinión ante el nuevo gobierno municipal, manifestamos nuestra intención de colaborar con él. El programa de gobierno que ha propuesto el equipo del nuevo alcalde nos parece muy cercano a nuestro programa.

*Programak auzoak ekarri nahi ditu "erdira". Hauen ordua iritsi dela uste dugu. Berdintasunaz, inmigrazioaz, hirugarern adinekoez, hirigintzari buruz (etxebizitzei lehentasuna emanez), hizkuntza politika, ezindu fisiko eta psikikoen egoeren aurrean gobernuak duen programa aurrerakoia iruditzen zaigu. Azkenik, ekologia eta ingurugiroari dagokionez, energia aurrezteko asmoa aurrerakoia iruditzen zaigu.*



# urretxu eta zumarragako euskara zerbitzuen eskaintza

## ERROTULUAK EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZAK

Denda, taberna, nahiz lantegi edo antzerako saltokietan euskara hutsean jarritako errotuluek edo iragarkiek eta etxe aurreko profesional jardueraren plakek izango dute dirulaguntza jasotzeko aukera.

Baldintzak:

- Euskara hutsean eta idazkera zuzenean jarri beharko dira, eta horretarako Euskara Zerbitzuaren aholkua eskatu ahal izango da.
- Ez da kontuan hartuko izen berezia, baizik eta langintza mota edo jarduera profesionalaren adierazlea.
- Errotuluaren kostuaren %50 ordainduko da, beti ere mota honetako dirulaguntza eskaera bakoitzeko Udalak onartuta daukan muga gainditu gabe.

## HIZKUNTZA AHOLKULARITZA

Euskaraz idazterakoan sortzen zaizkizun zalantzak argitzen lagunduko dizugu.

## ITZULPENAK

Zuk ezin baduzu testua euskaraz egin, guk lagunduko dizugu, baldintza hauek betez gero:

- Testuak azalpen publikorako izan behar du.
- 2 orrialdetik beherakoa izan behar du.
- Txukun idatzita ekarri behar da.

## KARTELAK

Zure establezimenduan jarri nahi dituzun jendaurreko kartel komertzialak egingo dizkizugu, euskarazko testuari lehentasuna emanez (tokia, neurria, intentsitatea...).

## MATERIALA BANATZEA

Euskara Zerbitzuak orain arte sortutako materiala emango dio eskatzen duenari: kartelak egiteko orri edo markoak, gaikako hiztegiak (harategietarako, okindegietarako, arrandegietarako...), euskal abestiekin egindako CDak eta abesti-zerrenda, euskaraz egoki idazteko aholku laburren dokumentua...>

***Jexux Mari Alberdi***






Proyecto de interés público

Proyecto de acciones para una sociedad mejor y mas humana.

**Nosotros**, los padres de afectados por el síndrome X Frágil, reclamamos :

**Adaptación de la enseñanza**

- **Deber** de formación para los logopedas en las particularidades **de los trastornos del lenguaje** propios de las personas que padecen el Síndrome X Frágil.
- **Deber** de formación para los docentes sobre **los trastornos de conducta** consecuencia del fenotipo cognitivo- conductual del Síndrome X Frágil: hiperactividad, impulsividad y déficit de atención.
- **Deber** de formación para los docentes sobre **los trastornos de le procesos cognitivos** comprendidos en el fenotipo cognitivo-conductual del Síndrome X Frágile : déficit de atención, déficits en memoria a corto plazo y dificultades de lenguaje.
- **Deber** de establecer un **programa de enseñanza que favorezca la integración de cualquier niño !**

**Despues de la edad escolar**

- **Derecho** de disfrutar de **proyectos de favorezcan las capacidades** y que respeten el ritmo de cada persona !
- **Deber** de proponer **proyectos profesionales** con los suficientes apoyos y dentro de un marco que implique una valorización positiva de la actividad con respeto al ritmo de cada persona !



Arraindegi: Hiztegia 7

| | | | |
|---|---|---|---|
| R | Rape / sapo | Zapoa | |
| | | Rape negro | **Zapo beltza** |
| | | Rape pequeño / sapito | **Zapo txikia** |
| | Raya | Arraia | |
| | Rey | Bisigu ahogorria | |
| | Rodaballo | Erreboiloa | |
| S | Salbariego/escorpión | Xabiroia | |
| | Salmón | Izokina | |
| | Salmonete | Barbarina | |
| | Sapito / Rape pequeño | Zapo txikia | |
| | Sardina | Sardina | |
| | | *Sardina de Ondarroa* | **Ondarroako sardina** |
| | Sardinilla | Parrotxa | |
| | Sepia | Sepia | |
| | Soldadito | Mihi-arrain txikia | |
| T | Trucha | Amuarraina | |
| | | Trucha asalmonada | **Izokin amuarraina** |
| V | Verdel | Berdela | |

Urretxuko Udala · Zumarragako Udala · EBPN





# KASUMAY!!

***Es el saludo con el que te recibirán en el sur de Senegal, en la zona de La Casamance. Es el saludo en Kwatay, la lengua usada por la etnia Djola mayoritaria en esta parte del país. Y es, por último, el nombre de una nueva asociación formada por 5 chicas, todas sanitarias, que aprovechan sus vacaciones para ir a echar una mano en una maternidad.***

Todo comienza cuando una de ellas, en unas vacaciones en Senegal conoce a las monjas que rigen la maternidad en La Casamance y le proponen ir a ayudar a cambio de alojamiento y comida. A su vuelta lo comenta con algunas compañeras y empiezan a animarse. Ya han estado en 2 ocasiones: en 2005 fueron 4 de ellas durante un mes y al año siguiente fueron 5 durante su mes de vacaciones. Este año van a ir por un periodo de 2 meses.

Aprovechan el viaje para llevar material escolar, procedente de algunos centros escolares de la zona y material sanitario, facilitado por los hospitales de Zumarraga y Donostia.

Aquí conocemos Senegal por su capital: Dakar, sí, esa del Paris-Dakar y por los inmigrantes que llegan día sí, dia tambien a las costas de Canarias o Andalucia, pero desde KASUMAI quieren que tengamos otra idea de Africa.

La mayoría de los inmigrantes que llegan a Europa procedentes de Senegal son de la zona norte del país, donde existe más pobreza. La zona donde se encuentra esta maternidad es una zona agrícola donde se vive bien y además sus habitantes no piensan en emigrar porque tienen sus necesidades básicas cubiertas. Sin embargo sí hay ciertas necesidades que se han detectado y en las que se quiere ayudar.

Una de las primeras actividades que han llevado a cabo como asociación ha sido la fiesta Senegalesa que se ha desarrollado en la plaza Areizaga-Kalebarren el sábado 14 de julio, con taberna, tómbola, actividades para niños y actuación de un grupo Senegalés y las actividades paralelas desarrolladas en el Gazteleku, del 13 al 17 de julio, la exposición de fotografías tomadas en Senegal, la cena senegalesa, el lunes 16, dia en que los vendedores tienen libre, o las proyecciones de





un corto rodado en Senegal y una película: “La pesadilla de Darwin”.

El objetivo principal de esta fiesta es dar a conocer un África diferente a la que imaginamos, pues la idea que quieren propagar es la de un África alegre, llena de vida, generosa y sorprendente, en palabras de una de las componentes de la asociación. Por otra parte también se quiere recaudar dinero para una serie de proyectos a llevar a cabo, sin que este último objetivo sea el más importante para ellas. Tambien quieren destacar la gran ayuda que han recibido de numerosas personas en la preparacion de la fiesta.

En la actualidad y por mediación de una ONG de Antzuola ya se han mandado ciertas cantidades de dinero procedentes de donaciones. Además el Ayuntamiento de Ezkio-Itsaso ha aprobado un proyecto para arreglar las placas solares de una escuela, y tienen presentados o piensan presentar algunos proyectos más en los ayuntamientos de la zona para la construccion o rehabilitación de 3 parvularios. Con todo y tal y como deciamos anteriormente el objetivo principal es “enseñar Africa”. Darla a conocer.>

***M.ª Carmen Viedma***
*Argazkiak:* ***Kasumay***





# KASUMAY

Senegal hegoaldean, La Casamance inguruan, egingo dizuten agurra izango da hori. Eta gainera, osasun arloko 5 neskak osatzen duten elkarte berriaren izena ere bada, opor garaian lurralde horretara laguntza ematera joaten direnak.

Neska horietako batek, Senegalen oporretan zebilela, La Casamancen dagoen amaetxea daramaten lekaimeak ezagutu zituen; orduan, laguntza ematea proposatu zioten mojek neskari, beti ere ostatu eta janariaren truke. Eta hortxe hasi zen guztia. Etxera itzuli zenean lagun batzuekin komentatu zuen gaia, eta animatzen hasi ziren. Dagoeneko bi aldiz izan dira han: 2005ean, lau lagun joan ziren hilabetez, eta hurrengo urtean, bost lagun, oporretako hilabetean hain zuzen ere. Aurten, berriz, bi hilabeterako joango dira.

Ikastetxe batzuetatik jasotzen duten eskolako materiala eramateko aprobetxatzen dute bidaia, eta Zumarragako eta Donostiako ospitalek emandako osasun-materiala ere eramaten dute.

Elkarte modura gauzatu duten lehen ekintzetako bat, uztailaren 14an Areizaga-Kalebarren plazan egindako festa senegaldarra izan da, eta horien parean, uztailaren 13tik 17ra, Gaztelekun burututako ekintzak.

Festa honen helburu nagusia guk imajinatzen dugun Afrika baten irudi ezberdina ezagutaraztea da; hau da, Afrika alaia, biziaz betea, eskuzabala eta harrigarria erakutsi nahi digute.

# BERTSO ESKOLA OSASUN BETEA'N



**Ostirala, arratsaldeko seiak. Harrigarria da, aste osoko nekea gainean duen gaztetxo taldeak bertso eskolara dakarren irribarrea. Saioa hasi aurretik, astean zehar eskolan egindakoaren berri ematen diote ikasleek elkarri, baita azken txutxumutxuen nondik norakoen berri ere. Ez daude, alperrik, bertso eskolako zenbait ikasle, nerabezaroaren atarian dagoeneko. Maisuaren eztulak bereganatu du, luze baino lehen, arreta. Lanari ekiteko ordua da.**

bada gure herrian, bertsolaritza gustuko izanik astero astero kultur etxean bildu eta berau lantzen aritzen den gaztetxo talde oparoa; poliki poliki, ostiraleroko lan isila ari da bere fruituak ematen, eta, aurtengo ikasturtean, gure herrian ezezik ingurukoetan ere zeresana eman dute sariketa entzututetsuetan gure bertso eskolako gaztetxoek lortu dituzten emaitza txundigarriek. Alta, sarien dizdira itsugarriaz haratago, urtetako jardunaz ureztatzearen poderioz bero eta goxo bilakatu den talde giro bereziak asebetetzen ditu gaztetxo hauek gehien.

Izan ere, bertso eskolako zenbait gaztetxok aurten eta aurreko urteetan lorturiko txapel, garaikur, sari eta gainerakoak dira, ziurrenik, herritar ugarik bertso eskolaz duen irudiaren zirriborro nagusia. Txapel eta sari hauek, ordea, ozeano erdian dagoen izeberg baten tontorraren modukoak dira, hots, ohikoa da askok txapel eta sarien tontor hori baino ez ikustea, tontorrak azpian oinarri sendo eta egonkorra izanagatik.

Bertso eskolaren arrakastaren gakoetako bat, ostiraleroko jardunaz kanpo antolatzen dituzten bestelako ekintzetan topa daiteke. Gaztetxoenek gustukoen dituzten merienda berdinik gabeak, afariak, inguruko bertso eskolekin egiten dituzten topaketak, bertso antzerkiak, bertso saioak, jolasak, irteerak, jende aurreko agerraldiak… Asteroko jarduna osatu eta aberasten duten mila ekintza, finean; taldea batzeko balio dutenak, denak ere. Izebergaren oinarria!

Hogeita bost gaztetxo aritu dira jo eta su amaitu berri den ikasturtean bertso eskolan, adinaren eta bertso eskolan daramaten denboraren araberako hiru taldetan banaturik. 2001eko udazkenean gaztetxoen bertso eskolako ziklo berriari hasera eman zitzaionetik, asko dira bertso eskolatik igaro diren gaztetxoak, iraupen ezbedineko egonaldiak eginaz. Zenbait kasutan egonaldi hauek laburrak izanagatik, sekula ez da txarrerako, gaztetxo hauen heziketan, bertso eskolatik igaro izana, euskara hobeto menperatzeko eta jende aurrean komunikatzeko gaitasuna edo irudimena lantzeko guztiz baliagarri izango baitzaie bertsoak egiteko teknika hurbiletik ezagutu izana.

Doinu berriak ikasi, errima landu, gai baten aurrean hartu daitezkeen jarrera ezberdinak aztertu, irudimena lantze aldera ideiak sortu, ideia horiek bertsoaren neurri hertsira egokitu, bertsoa osatu… Eta, nola ez, bertsoak kantatu. Gazteenek, ariketa errazagoak egin ohi dituzte, aurreneko urteetan oinarri sendo bat hartu eta pixka bat kozkortu orduko bertsoak kantatzeko gai izan daitezen. Zaharrenak, ostera, ari dira poliki poliki bat batean kantatzeak sortzen duen beldurra gainditzen. Urtean zehar egin duten jende aurreko agerraldi andana, beldur hori gainditu duten adierazgarri.

Uda iristearekin batera, eten egin da bertso eskolaren asteroko jarduna. Irailean, ordea, gogo biziz itzuliko dira berriz ere lanera, ondo baitakite lagun talde atsegina dutela zain bertso eskolan. Bertsotan egiten ikasiz lagun talde honetako giroaz gozatu nahi duen gaztetxo ororentzat, zabalik daude, parez pare, bertso eskolako ateak.>

*Testua eta argazkiak:*
***Gorka Azkarate***

## bertso eskola

Con la llegada del verano, ha finalizado el curso en la bertso eskola de Urretxu-Zumarraga. En la actualidad la bertso eskola está formada por un grupo de 25 chavales y chavalas, divididos en tres grupos en función de la edad y la antigüedad de cada uno en la misma. Hay que destacar el extraordinario grupo que se ha formado en torno a la actividad relacionada con el bertso, y el gran ambiente que reina en cada una de las sesiones semanales que llevan a cabo en la casa de cultura. Por otro lado, también complementan la actividad semanal con numerosas actividades que llevan a cabo a lo largo del año, uniendo aún más, si cabe, el grupo. En septiembre retomarán las clases, y ése será el momento en el que nuevos jóvenes entren a formar parte de la bertso eskola, e inicien así su andadura para, quién sabe, quizá llegar algún día a emular a Andoni Egaña o Maialen Lujanbio...

### *DENOK BERTSO ESKOLARA!*

*Uda iritsi arren*
*beharko kontsola,*
*a ze urte ederra*
*arranopola!*
*Guretzat hau delako*
*hitzaren kirola,*
*neurri, errima eta*
*doinu zirimola,*
*ez zaigu axola*
*ez eten inola*
*jakin denok hola:*
*zabalik dagola*
*eta egongo dela*
*bertso eskola*

*Antzine Aranburu, 2004-7-1*



***Edurne Plazaola, Ane Agirre, Elene Alberdi***

Edurne eta Anek badaramate zenbait urte bertso eskolan; Elenek, berriz, eman du, dagoeneko, datorren ikasturterako izena, bere ahizpa Joneren urratsak jarraitu nahian. Udan atseden hartu ondoren, gogoz itzuliko dira irailean bertso eskolara Edurne eta Ane. Elenek, hasiberriaren ilusioz itxaroten du aspalditik bertso eskolako atea zeharkatzeko unea.



### Amaia Iturriotz, Jone Alberdi, Maialen Akizu, Leire Akizu

Laukote honek udan atseden hartu bai, baina tarteka bertsotan aritzeko asmoa ere ba omen du; mendira edo hondartzara bidean kotxean bertso ugari botatakoak dira eta entzun beharko dute euren gurasoek, aurtengo udan ere, ale bat baino gehiago. Ziur, gainera, ez direla bertso makalak izango autobidean botatako horiek.

### Arkaitz Aizpuru, Beñat Torres, Jon Ander Arzelus, Mikel Iturriotz, Iker Azpeitia

Bertsotarako dohai apartak izateaz gain, kirola ere gustuko du boskote paregabe honek; saskibaloia, eskubaloia, futbola, pilota, eta, azken aldian, irabazle eta galtzailerik gabeko kirol sanoa: elkar zirikatzea. Bertsolari sena barren barrenean duten seinale!





### Inazio Igartua, Xabi Araña, Julen Azpeitia, Urko Peñagarikano

Bertso eskolan denbora gutxi daramaten arren, ederki ikasi dute zer duten bertako jardunetik gustukoen: maiztasun handiz egin ohi diren meriendak! Beti ez da, baina, bertso eskolan meriendatzeko aukerarik izaten, eta bertsotn egin beste erremediorik ez zaie geratzen horrelakoetan. Poliki poliki ari dira, txikienak ere, bertsoa zer den ezagutu eta bertsoaz gozatzen ikasten. Eta hala jarraituko dutela diote, gainera, aho batez.

*Oharra: argazkietan agertzen diren gaztetxoez gain, Manex Mantxola, Ander Arbulu, Maider Martinez, Asier Oliveira, Jone Oruesagasti, Sara Urrestarazu, Iker de la Osa, Jon Mendizabal, Andoni Oruesagasti eta Gorka Gaztañaga ere bertso eskolako ikasle dira gaur egun.*

*Maite Quevedo*
*M.ª Carmen Viedma*



**JUAN RAMON ARAKISTAIN**

Parkea polita da eta nabari da haurrei gustatu zaiela. Agian zuhaitz gehiago egongo balitz hobe, eguzkiak berotzen duenean itzal gutxi dago eta. Nire ustez parkeak haur txikientzat dira, eta hau ere bai. Nire alabak lau urte ditu eta gustura dabil bertan. Hamar urteko haurrek traba egin diezaiekete txikienei; oztopo izan daitezke.

El parque es muy bonito pero creo que está más acertado para niños mayores de 8 años. De todas formas, comprendo que todos tienen derecho a hacer uso de él. Tenemos que ser comprensibles y respetuosos, aunque no es fácil. A los más pequeños les molestan los mayores, y al contrario. El conflico que ha creado el parque deja otro al descubierto: que los chavales de 11, 12, 13... años, realmente, no tienen sitios para estar juntos, sobre todo en invierno.

**ADELA SANDOVAL**





**ELENA LOPEZ**

El parque me parece que está bien. Eso sí, estaria mejor si fuera más cubierto, para cuando calienta mucho el sol o llueve. Mi hija tiene tres años pero el parque es para niños más mayores, ya que hay sitios que pueden resultar peligrosos. El problema se solucionaría haciendo otro del estilo pero para los más pequeños en las otras zonas de la plaza.

## Zer iruditzen zaizu Belaustegi plazako parke berria? Zein adineko haurrentzat dela deritzozu?

## ¿Qué te parece el nuevo parque de la plaza Belaustegi? ¿Para niños de qué edades crees que es?

Gure ustez parkeak 8 urtetik gorakoentzat izan beharko luke. Guk 11-12 urte ditugu eta oso gustura ibiltzen gara bertan. Gainera, herrian gure adinekoentzat dagoen parke bakarra da, txikiek badituzte askoz ere gehiago. Nola da posible ama batek 2 urteko haur bat parkean sartzea? Gainera, haurra erortzen bada errua nagusiagoei botatzen digute eta gauzak ez dira horrela. Parke hori ez dago haur txikientzat egina eta kartel bat jarri beharko litzateke.

**IMANOL GUTIERREZ, ARKAITZ AIZPURU eta IMANOL ALBERDI**





**JOSE ALBERTO MARTIN**

El parque está muy bien. Mi hija tiene tres años y sí que veo que hay zonas del parque que son peligrosas para ella. También entiendo que a los que son más mayores también les guste el parque, igual está más indicado para ellos. Habrá que andar con cuidado y respeto. Por ejemplo, mi hija, ella misma, no va donde ve que hay mayores.

# San juan argazk



# itan



## Arbola Jartzea

2007 / 06 / 23





## San Juan eguna

2007 / 06 / 24



**Miren Castillo**
*Argazkiak:* ***Aresti***



**oso pertsonala**

*Izen-abizenak:*
***Esteban Larrañaga Soraluce***

*Adina:*
***59 urte***

***Trikitilari Elkarteko lehendakari ohia***

# ESTEBAN LARRAñAGA

## "Ez dago alaitu eta giroa sortzen duen soinu txarrik"

***Toda una vida cultivando con pasión su mayor afición, la trikitixa, hacen de este urretxuarra de adopción uno de los mayores expertos en el tema. Tras el obligado paréntesis de su enfermedad espera impaciente volver a Arrate irratia para seguir con su labor divulgativa de una modalidad musical que se tambalea entre el tradicionalismo y la modernidad.***

***Abizen horrekin, azkoitiarra al zaitugu?***

Gurasoak bai; ni, berriz, Loiolako Agerretxo baserrian jaioa naiz, S. Esteban egunekoa. Nongoa naizen galdetzen didatenean, Azpeitikoa, Loiolakoa, Azkoitikoa edota Urretxukoa naizela ematen diet aukeran.

***Bete al zen orduan abestiak diona: "behin batian Loiolan..."?***

Ez, ez. Erromeri askotan ibilitakoa naiz bai, baina emaztea Azpeitiko taberna batean ezagutu nuen zerbitzari eta txikitero ginela. Eta berriketan hasitako ordutik hona, 30 urte pasatxo bete ditugu elkarrekin, bizitza erdia.

***Eta Urretxura, "kapitalera" bizitzera etortzea erabaki zenuten ezta?***

Justu orduantxe ni Zumarragako Kutxan lanean hasi berria nintzen eta berak Fagorren aritzen zenez, errazago zen ni hona etortzea andrea behera joatea baino, eta halaxe egin genuen.

***Kutxako lana ez ote da lanbide serioegia parrandero batentzat?***

Gaixotasunak behartuta aurrejubilazioa hartu behar izan arte, oso, oso urte onak pasa ditut han. Beti ondo eraman dudan eginbeharra izan nuen: jendearekin harreman zuzena izatea eta denekin hitz egitea, eta dirudienez horretan ez omen nintzen txarra.

***Aipatutako bezeroekin izandako erlazio estu horretan, kasu gogorrak ere biziko zenituen behin baino gehiagotan ala?***

Bai, jakina, baina ezta ere askok pentsatzen duten bezainbeste. Batzuei entzunda badirudi Gipuzkoako etxebizitza kopuru erdia Kutxarena dela, eta agian, halaxe izango da mailegu hipotekarioa bertan lortu dutelako baina ez behintzat, ordaindu gabe utzi eta bereganatu dituelako.

Hori zen alde txarrena, zeren, noski, zu langilea zara bai, baina baita sentimenduak duen pertsona bat ere, eta kasu askotan eta garai haietan gehiago, ia bezero guztien ezaguna edota laguna.

Hala ere esperientzi gogorrena bezala behin izandako lapurretarena aipatuko nuke. Urriaren 4a zen egun batean bere bi esne marmitekin eta guzti nireganaino etorritako baserritar batekin ari nintzen bere alargun pentsioaren paperak betetzen eta hara non, "alto esto es un atraco" oihukatuz hasi zen festa. Emakume gaixoa dardarka hasi zen eta nik lasaitzeko esaten nion bakoitzean, "ezin det baina, ezin det" erantzuten zidan;



baina lapurrak niregana hurbildu zirenean, "no le hagan nada que es buen chico" behin eta berriro esanda atera zen nire alde. Zorionez, hori izan da nik bizi izandako,eta garai hartan hain modan jarri ziren lapurreta bakarra.

***Bizipen horiek alde batera utzita jo dezagun orain zure bizitzaren alde alaiagoetara, hots, ofiziotik afiziora.***

Ofizioa inportantea da bai, baina afizioak dira benetan pertsona betetzen dutenak. Nik gogoratzen dudala, 7 urterekin hasi nintzen jostailu baino ez zen soinu batekin endredatzen. Gero Javierreko seminariora joan nintzen jesuitekin ikastera eta hango Aita Zabalak utzi zidan nire lehenengo benetako soinua, "de 45 bajos" eta harekin bai hasi nintzen zerbait ikasten.

Handikan, 20 urterekin itzuli nintzen eta soldaduskara joateko sei hilabete baino ez falta zitzaizkidala, osabaren tabernara eta egungo "Kiruri" jatetxera joaten nintzen zenbait bodatan soinua jotzera. Baita ere, Lajari lagunduz joaten nintzen erromerietara baina bai azkar erre ere. Hogei urte izan arte guztiz lotuta egondakoa sentitzen nintzen eta behin handik askatu eta oraindik, koadrilakoak erromerietan atzera eta aurrera ibiltzen ziren bitartean , nik soinua hartu eta auskalo nora joan behar izaten nuen. Azkenean esan nuen "inoiz ogibideren bat lortzen badut soinu jolea baino soinu zalea izango naiz". Esan eta izan. Berrogeita bat urte izango dira mundu honetan sartu nintzela eta oraindik ere, noizbait, jo egiten dut baina, gehien bat entzun egiten dut. Ikaragarri gustatzen zait trikitixa entzutea eta horrela zenbait txapelketatan epai mahaikide izateko deitzen didate.

Ez da lana erraza. Niretzat soinu jole txarrik ez da behar duen betebehar hori, alaitu eta giroa sortu, egiten baldin badaki.

***Etxean trikitixa inguruko aparteko girorik ez baldin bazenuen, nondik datorkizu soinuarekiko duzun irrika hori?***

Garai hartan bazen gure baserrian inoiz utzi gabe entzuten zen Josemari Iriondok "Garo usaia" izenpean egiten zuen irratsaioa. Saioak hiru atal zeuzkan: bertso sorta, soinu piezak eta Atxukarro kontalariaren pasadizoak.

Bestaldetik, oraindik gogoratzen dut ere nola Santa eskearen (Sta.Ageda) bezperan abestera etortzen zirenean eta koplak bota ondoren barrura kafetxo bat hartzera sartzen zirenean, ni beti soinu jolearen ondoan esertzen nintzela. Harez geroztik urte dexente pasa bada ere, duela gutxi Arrate irratian aukera paregabea izan dut, soinu jole azkoitiarra hura gonbidatu, bere ahaztezinezko musikaz lauzpa bost konpakto betetzeko eta, berriro, begi aurrean soinu gorri harek nola berpizten zen bizitzeko.

***Zer lotura ikusten duzu garai horietako jotzeko era eta Kepa Junkeraren ikuskizunen artean?***

Niretzat trikitixa ez da bakarrik soinua, inguruan duen bizitzeko filosofi oso bat ere. Tapia, Laja eta bera izan dira soinu txikiari buelta eman dioten bakarrak. Kepak gainera, soinua orkestran txertatzea lortu du, hori bai meritua. Bilboko Rekalde auzokoa da eta hango girotik soinu jole bat sortzea ez da makala, txapela kentzeko moduko soinujolea gainera.

Hala ere, soinu txikiarekin, nire gustukoenak Asteasuko Astiazaran anaiak dira. Ez dira ahaztu behar ere gure ondokoak: Edurne Iturbe, Olarte, Elorza anaiak, Gari eta Iñaki eta beste guztiak, oso onak dira denak.

> ***"Después de andar de jovencito tocando por las romerías y las bodas pensé: cuando consiga un trabajo, en lugar de tocar me dedicaré a escuchar y disfrutar de la trikitixa"***

***Iñaki semea aipatu duzula, oker ez banago, panderojolea duzu, baina, ba al dago panderorik gabe soinua jotzerik?***

Bai, bai, eta panderoa bakarrik ere bai. Laja adibidez, pila erromeri egin ditu balsa, arin-arina edota fandangoaren erritmoa panderoz soilik markatuz.

Ordura arte nahiko libre baldin bazegon ere, behin ni Trikitilari Elkartean sartu nintzenetik fijoa jarri genuen panderoaren erabilera txapelketetan behintzat.

## "Ya hace 41 años que entré en este mundo y todavía toco en alguna ocasión. Pero lo que realmente me encanta escuchar la trikitixa y así participo como jurado en muchos concursos"



**Nolakoa izan da lehendakaritza -ren esperientzia?**

Gogorra. Oso ondo gogoratzen naiz zenbat kostatu zitzaigun lehenengo txapelketarako 7 pareja lortzea. Baserriz-baserri ibili arren ia inor ez zen Donostian jende aurrean jotzen hastera ausartzen .

Behin, "Ez dok amairu" taldeak bere lehendabiziko jaialdia egin behar zuela, Benito, Xabier , Lourdes, e.a. han zirela, Laja eta Landakandaren saioa txertatzea erabaki genuen; denek, "hi zoratuta hago" leporatu zidaten aho batez, baina jaialdia zoragarria izan zen eta, are gehiago, askotan, soinuaren inguruan dagoen behe mailakoa izatearen konplexua puskatzen joateko ere lagundu zuen.

**Soinuzale amorratua zarela bai, baina dantzazale ere?**

Baita ere. Gu, koadrilan, Martitten egiten zen erromerira joaten ginen. Hiru ordu pasatxo dantzan aritu ondoren eta dirua bazegoen bokadiloa jan eta berriro oinez etxera bueltatzen ginen. Eta hori jaiero-jaiero Orain nik, errekuerdo izugarri politak dauzkat gazte denboran, Azkoitin, igandeetan, txikiteo garaian, nola ibiltzen ginen denak abesten. Igual 15-16 talde izango ginen, bakoitza taberna batean jo eta ke abesten, eta bukatzeko, elkarrekin "Agur jaunak" abestu, jertsea bizkarrean ipini eta "iuf, ederki pasa diagu ba" esanez, ikaragarri disfrutatzen genuen.

**Soinu-jolea, dantzari, abeslari, eta hori gutxi balitz irrati gizona ere omen zara.**

Aspalditik dator kontua. Garai berean nik "goiz argi" aldizkarian idazten nuen eta Arrate irratiko zuzendaria den Bernardo Ibarrak bizkaiko aldizkari batean idazten zuen eta, hara non okurritu zitzaien bion idatziak elkar trukatzea, hau da, gipuzkeraz idatzitako artikulu bat bizkaiko aldizkarian txertatu eta alderantziz. Horrela hasi zen gure erlazioa. Urte batzuk geroago Eibarren ospatzen zen gaztetxoen txapelketa batean, epaimahaikide nintzela, han etorri zitzaidan Bernardo astero irratsaio bat egin behar nuela aginduz. Froga egin eta 25 urte bete ditugu ordutik hona. Egun horietan familia goizeko 7etan utzi eta gaueko 12etan berriro etxeratzen nintzen, ekaitzak, euria, elurra eta abar zirela tartean.

Arraten altxor handia dugu gordeta, azken 25 urteotako grabazio guztiak, hasten ziren gaztetxoak, ezagunenak, hildakoak, den-denak.

Aurreko batean, Getarian, ni epai-mahaiburu nintzela, berriro topo egin nuen Bernardorekin eta, "hi, ni egiten aspertu naiz, eh!. Azkar etorri!" esan zidan denen aurrean. Egia esan, operaziotik erabat ondo ateratzen banaiz bueltatzeko asmoa dut, bai. Arrate, niretzat, bigarren etxea izan da. Askatasun osoz egin dut han lana; beno, lana baino gehiago, soinuaz enamoratuta dagoen edozeinentzat bezala, ikaragarri disfrutatzea izan da nirea.

Esan beharrik ez dago zorterik onena opa dizugula Esteban; ziur gaude Arrateko amak, orain arte bezala, une latzetatik aldenduko zaituela. Mila esker bioi.>

**Jon Castrillo**
*Argazkiak:* **L.A. Téllez**



## "Radio Arrate ha sido mi segunda casa. He trabajado allí con entera libertad; bueno, más que trabajar lo mío ha sido disfrutar inmensamente, como lo haría cualquier enamorado de la trikitixa"

# lore lehiaketa

Etxeetako balkoiak eta baserrietako atariak lore ederrenez apaindurik ikus ditzakegu hilabete honetan, lore sariketan parte hartu duten horiek behintzat. Epaimahaiko kideak uztailaren 3tik 6ra bitartera ibili ziren loreak ikusten . Lore eta landareen itxuraz gain, hauen dentsitatea, uniformetasuna eta landarean osasun egoera izan zituen kontuan sarituak aukeratzeko unean. Lehiaketaren helburua etxaurreak apaintzea denez, ez da mailarik bereizi. Kaleko balkoi eta leihoen artean hamar sari banatu dira eta baserrien artean sei. Saritu bakoitzak 50 euro, diploma eta opari bana jaso du.

**KALEKO BALKOI ETA LEIHOEN ATALA:**

- Mª Jesus Zabalo Iparragirre. San Gregorio, 23- 4. esk. (ZUMARRAGA).
- Lourdes Idiakez Plazaola. Secundino Esnaola, 5-3º F (ZUMARRAGA).
- Dolores Murillo Valiente. Bidezar, 17-3º C (ZUMARRAGA).
- Antzina Urteaga Barreras. Artiz auzoa, 26-1. esk (ZUMARRAGA).
- Iratxe eta Saioa Larrarte. Izazpi, 15-1. F. (ZUMARRAGA).
- Pilar Garcia de Albeniz Ruiz de Luzuriaga. Barrenkale 17-5.D (URRETXU)
- Maria Jesus Urzelai Lazkano. Jauregi 47 (URRETXU)
- Bernardo Montecelo Guerrero. Labeaga 19-1.D (URRETXU)
- Apolonia Rodriguez Aguado. Labeaga 33G-1.C (URRETXU)
- Rosa Mª Lizarralde Gabilondo eta Ignacio Sasieta Aiastui. Ipeñarrieta 24-3.B (URRETXU)

**BASERRIEN ATALA:**

- Mª Jose Zubillaga Azpillaga. Oraagoikoa baserria (ZUMARRAGA).
- Patxi Plazaola Zinkunegi. Abendaño baserria (ZUMARRAGA).
- Mª Jose Aizkibel Aranzadi. Aldasbarren baserria (ZUMARRAGA).
- Cristina Sasieta Aiastui. AGERRE BASERRIA (URRETXU)
- Amparo Etxeberria Aranzadi. ETXABURU BASERRI (URRETXU)
- Mª Salomé Murua Iturbe. LARREAGA BASERRIA (URRETXU)
  Nekane Egia Etxebarria. LARREAGA BASERRIA (URRETXU)



# visita de schwarzenbruck



El equipo de ajedrez de Schwarzenbruck , localidad alemana hermanda con Urretxu, nos ha visitado este mes de julio. La quinta edición del torneo de ajedrez entre poblaciones hermanadas de Euskal Herria y Alemania disputado en Gernika ha sido el motivo de la visita. El año pasado fueron los de aquí los que se desplazaron y ahora les tocaba a ellos. El grupo de Urretxu lo compusieron Julen Albisua, Pedro Castro, Zigor Igartua y Urko Mendiguren y quedaron en cuarta posición.

Además de jugar al ajedrez, los alemanes tuvieron la oportunidad de visitar los alrededores.

# UDALEKUAK

Uztailean haurrek oporrak badituzte ere, guraso gehienek lanera joan behar izaten dute oraindik ere. Hauentzat, aukera ona izaten dira udaleku irekiak. Bertan, jolasten, eskulanak egiten edota mendira joanez pasatzen dute goiza txikienek, lagun artean eta giro ezin hobean. Gainera, San Fermin jaiak tartean egonik, entzierroak ere egin dituzte haurrek, haiek egindako zezen eta guzti.



Udaleku irekiak ez dira herriko haurrek izan duten aukera bakarra. Izan ere, bigarren urtez Udaleku Musikalak antolatu baititu Secundino Esnaola musika eskolak. Aurtengoan, 65 haurrek hartu dute parte, iaz baino hogei bat gehiagok. Nabari da ekimenak arrakasta duela.

Beti ere musika oinarri izanik, dantza, kantua, gorputz espresioa eta euskal dantzak landu dituzte udaleku musikaletan parte hartu duten haurrek. Jolasten eta ongi pasatuz asko ikasi daitekeela frogatu dute. Eta, ikasitako guztiaren erakusgarri, jaialdi bikaina eskaini zuten hilaren 13an Labeaga aretoan.





# laburrak





## geltokietako jaiak

Auzokoek festak antolatzea lan zaila dela badiote ere, aurtengoan gainditu dute erronka. Ekintza ugari antolatu dituzte, adin eta gustu guztientzat: buruhandi eta erraldoiak, jolasak,triktixa, bertsoak, tailerrak, dantzaldia, batukada, bazkari zein afari herrikoiak, krosa, txapelketak.... Eguraldia onena izan ez bada ere, ez da girorik falta izan auzoan.

Irimo azpi abesbatzak ere, kantuan jarri zituen auzotarrak larunbat arratsaldean giro aparta sortuz. Igandean berriz, ohiko asto karrerek lekukoa eman zioten Freestyle ikuskizunari. Arrepiado Team taldeko gidari trebeek motorrekin egindako akrobaziek aho zabalik utzi zuten jendea. Motor zaleek sekulako ikuskizuna ikusteko aukera izan zuten.

## irailean santa anastasia jaiak

Uztailean zehar eta asteartero jai batzordea bildu da kultur etxean. Urtero bezala aurten ere ekitaldi ugariz beteriko jai egitarau erakargarria egiten saiatu dira. Jai Batzordetik jaiak guztion gozamenerako izan daitezen.

Jaia herriko musikari, dantzari, artista, kuadrila, eta herri kulturan txertatuta dauden gainontzeko eragileei esker iraun arazten da. Jai Batzordea osatzen dutenek jaiaren zentzu osoaren partaide eta erantzule sentitzen dira era berean. Horregatik aurten ere burubelarri lan egin dute, gogoz eta ilusioz, guztiontzako jai herrikoi, partehartzaile eta euskaldunak egiteko.






## buenas noticias para urola telebista

Al departamento de cultura de Gobierno Vasco ha concedido a Urola Telebista la licencia de "televisión digital terrestre" (TDT). Nuestra televisión local es una de las cuatro adjudicatarias de la demarcación de Beasain. La adjudicación de la licencia será para 10 años, prorrogables a otros diez o más. Con este logro UTB entra en la nueva era de la televisión digital.



## mojate por la esclerosis multiple

Organizado por la Fundación Vasca Esclerosis Múltiple Eugenia Epalza y con la ayuda de la asociación Aterpe de Urretxu, el 8 de julio se celebró la décima edición de la campaña Mójate por la Esclerosi Multiple. La lluvia no permitió que la campaña de sensibilización se llevara a cabo en la piscina. De todas formas, los del Aterpe estuvieron en las estaciones y recaudaron 380 euros. Aunque no sea una gran cantidad se mostraron muy satisfechos, ya que cualquier ayuda , por pequeña que sea, no deja de ser importante.

**Maite Quevedo**
*Argazkiak:* **Aguado, Téllez eta M. Quevedo**




# GAZTELEKU berriak 5 urte



**_Badira ia 9 urte Gazteleku zaharra desagertu zenetik, 1998ko ekainean; badira ia 5 urte leku berria hartu zuenetik Urola treneko geltoki zaharrean. 2003ko ekainaren 22an hasi zen martxan, Zumarragako zein Urretxuko hainbat gazteen ilusio eta ahaleginez aurrera egin asmoz._**

Aurten, 5.urteurrena ospatu dute ekainean zehar hainbat eta hainbat ekintza burutuz. Urtarrilean hasi ziren buru belarri egin beharrekoa antolatzen, erabakitzen...

Honako hau izan da egitaraua:

**• _Ekainak 2 larunbata_**

Bizikleta irteera batekin hasi ziren, ondoren eskubaloi partida bat antolatu zuten, azken honek jende ugari bildu. Bukatzeko, "Rock and Roll gaua" ospatu zuten, non bertan herriko talde berri batek parte hartu zuen HIGH SCHOOL GUNNERS deiturikoa, honekin batera NUUK AT eta SEXTY SEXER-ek ere jo zuten.Oso jendetsua izan zen kontzertua.

**• _Ekainak 8 ostirala_**

Pelota partido batekin hasi zuten eguna Eitzako frontoian eta KONZERT + NUNBAIT "Metal gaua"ren musika ozenekin bukatu.

**• Ekainak 9 larunbata**

Egun osoan zehar ekintza ezberdinak burutu zituzten. Bazkari eder batek 90 bat pertsona bildu zituen , eguraldiak gutxi lagundu arren hainbat jolasetan parte hartu zuten ere. Bukatzeko,gauean, GazteleKUko gazte eta "helduentzako" "Guateke"batekin ederki amaitu zen gaua.

**• Ekainak 15 / 16 / 17**

Lau elementuen asteburua

Hainbat ekintzekin osatu zuten asteburua, ostiraletik igandera; Kale sustraiak, skate,break dance, graffitiak… Gauean hip-hop kontzertua egon zen Gaztelekuan: PANZERS + KORAZON KRUDO

**• Ekainak 21,osteguna**

Argazki+poesia errezitaldia egon zen. Gazteleku zaharreko argazki erakusketak erantzun oso ona eman zuen, jende ugari animatu zen bertara, baita bideo emanaldiak ikustera ere.








Hainbat gauza antolatzerako orduan, materiala zela eta, gastuak… Udaletxeari laguntza eskatu izan zaio. Baina bestela, autogestioaren bitartez aurrera eraman dute lan guztia. Gazte Asanbladako jendeak zein inguruan dabiltzanak ere parte hartu dute ekintzak antolatzen, dena ondo atera zedin.

Harro daude ateratako emaitzaz, gazteek egindako lana delako, aurrera egiteko indarra, bultzada ematen die.

Ateratzen duten balorazioa honako hau da:

Balorazioa ona izan da. Jendea hasi da ohartzen Gaztelekuko gazteek egiten duten lanaz. Erreferente bihurtzen hasi dira herrian hainbat eta hainbatentzat.

Urteurreneko ekintzez gain Zumarragako festak antolatzen gau ta egun ibili dira ere. Orain Urretxuko festei begira dihardute lanean.

Honekin batera, esan behar ere, hilabeteko azken ostegunetan dokumentalak botatzen direla Gaztelekuan, eta udan, ZineKU emanaldiak daudela astearte gauetan, eguraldi ona egiten badu kanpoan izateko asmoarekin.

Ikusten duzuenez, Urretxu ta Zumarragako gazteak GazteleKura trago bat hartzera baino gehiago joaten dira. Herriaren alde lan egiten dutela argi dago, gazte, heldu zein umeei alternatiba ezberdinak emanez. Ez da taberna soilik, elkarlekua da, edozeinek parte hartzeko aukera eskeintzen duena.>

***Ana Isabel Iturbe***

*Argazkiak:* ***Gazteleku***

## 5.º aniversario del gazteleku nuevo

…ya han pasado muchos años desde que echaron el GazteleKU de la plaza Gernikako Arbola, unos 9. A pesar de ello, gracias al esfuerzo de muchos jóvenes de Urretxu y Zumarraga se puso en marcha otra vez, hace unos 5 años.

El mes de Junio ha estado repleto de actuaciones musicales, exposición de viejas fotos, partidos de pelota, juegos para niños, graffitis…todo ello para celebrar el quinto aniversario del KU situado en el viejo geltoki del tren Urola.

A parte de celebraciones, durante todo el año, a través de la autogestión (salvo en una ocasión), organizan diversas actividades, charlas…

Como véis, los jóvenes del KU no paran, trabajan día a día ofreciendo diferentes alternativas de ocio. No es sólo un bar, el KU es un punto de reunión, donde todo el que quiera pueda participar…



# KAIXO TXIKI!!

*Aupa neska, aupa mutil, iritsi zaigu uda, iritsi zaizkigu oporrak! Debekatuta daukazue aspertzea, ados? Hartu bainujantzia eta zoaz ondo pasatzera, eskolan hainbeste lan egin eta gero, ezta?Jeje...*

*Udalekuetan ibili diren 5 eta 6 urte bitarteko hainbat txikitxo, ikusi zein guapo dauden argazkitan!*



Patxi Gurrutxaga, Igor Garcia, Aitor Enparanza, Iker Lara, Ainara Ezeiza, Lucia Lopez, Gaizka Melendez, Maitane Rivas, Ander Cuerua eta Xabier Etxezarreta

**MOKOLOAK taldea**

"Lehenengo egunean jolasak egin genituen, Bixkor herensugea margota, plastilinarekin sua egin genuen, hostoak biltzera goaz orain!"



Lucia Albisua, Gorka Tapiador, Maialen Miguelez, Martin Aranburu, Xabier Blazquez, Nekane Urkiola, Imanol Plazaola, Oier Etxeberria, Jon Mendiaraz eta Jon Mikel Salaberria

**MAITE KUTTUNAK taldea**

"Udan ez gara aspertzen!! Goizetan udalekuetara eta arratsaldetan siesta bota, jolastu edo eta telebista ikusten dugu! Gure monitorea Miriam deitzen da eta ondo portatzen gea berarekin"





Unai Gabilondo, Eneko Sagastume, Gorka Rodriguez, Aitor Sanchez, Maria Mutiloa, Janire Cibeira, Nerea Arrazola, Maialen Nin eta Uxue Lucena

**EUSKAL HERRIKO DRAGOIAK taldea**

"Gure maskota dragoi bat da, Bixkor. Ondo pasatzen dugu oporretan, udalekuetan. Eskolan baino hobe!"



Oihan Aberrieta, Ekaitz Aberrieta, Sara Gabilondo, Dara Osinalde, Ander Zufiaurre, Oier Zufiaurre, Mirene Alustiza, Haritz Chico, Nerea Iturbe, Aimar Garcia

**TXIMISTA taldea**

"Udalekuetan gauza asko egiten ditugu, tenperarekin ibili, txapak egin, koadroak egin...ez gera batere aspertzen! Maskota bat dugu, herensuge bat, "Bixkor" deitzen dena."

# DENBORAPASAK

## HIZKI ZOPA

Piszinara edota hondartzara eramaten dituzun 6 gauza hauek ea aurkitzen dituzun!

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | Z | K | B | A | I | N | U | J | A | N | T | Z | I | A |
| A | E | R | A | R | A | U | S | A | I | T | O | U | I | A |
| S | T | E | L | E | K | A | R | T | O | Z | A | L | P | U |
| T | X | M | E | U | K | I | L | X | P | I | I | Z | M | X |
| T | X | A | N | K | L | E | T | A | K | O | L | E | R | K |
| S | R | K | O | L | T | X | O | N | E | T | A | I | M | P |
| U | R | D | I | M | E | U | G | O | Z | O | T | E | I | L |
| T | E | R | N | A | M | O | T | A | Z | K | I | A | K | M |

Hitzak: Bainujantzia, koltxoneta, krema, toaila, txankletak eta txanoa

## OLERKITXOA

Bukatu gabe dagoen olerkitxoa ea amaitzerik duzun!

"Eguzki h_ria
z_ruan dantza_i.
Ze_u urd_na
Lai_oetan jost_ri.
Lai_o zu_iak
Txo_itxoen ohe.
Eta t_oritxoak, t_io-tx_o
Kanta_i.
Badato_ _ela, ba_atorrela !
Uda ande_ea,
Ho_iz, urd_inez,
zuri_ jantzirik!"



***Ana Isabel Iturbe***

# rememorando el pasado



La Consejería de Comercio, Industria y Turismo del Gobierno Vasco concedió al Ayuntamiento de Urretxu una de las ayudas a entidades locales para ejecución de planes especiales de revitalización comercial. Con esa ayuda se plantearon dos actuaciones, una de ellas ya realizada dirigida a la mejora de los espacios ajardinados, zona de la Casa de Cultura, el entorno de la estatua de Iparragirre, jardines del Aterpe y la zona de la casa Mantxola. Ahora nos ocupa la otra actuación: la colocación de quince placas de metacrilato en los edificios más emblemáticos del Casco Histórico de Urretxu que recogerán algunos datos sobre los mismos. Pero desconocemos si para cuando el lector lea estas líneas estarán ya formando parte del paisaje urbano.



*"La historia de algunos edificios emblemáticos de Urretxu recogida en placas"*

En estas placas y de manera resumida figurarán los datos más significativos de los edificios, todos ellos de entre el siglo XVI y XIX: el nombre, las características, la fecha de construcción, etc. Constarán de texto en euskara y castellano, una fotografía del edifico, otra de un detalle del mismo y un dibujo arriba a la derecha que nos situará en qué punto del Casco Histórico nos encontramos. Las fotografías y retoques de las mismas las ha realizado Luis Angel Téllez.

Nos hemos puesto en contacto con Koldo Argandoña, archivero del Ayuntamiento, para que nos hable sobre el proyecto. Nos cuenta que había que seleccionar 15 edificios del Casco Historico, pero que no se podía obviar un edificio emblemático como el de Baroikua, a pesar de que estuviera fuera del mismo. Así mismo está fuera del casco el denominado tajamar, situada en uno de los jardines de la plaza Areizaga-Kalebarren. En este punto se colocarán dos placas donde se explicará que son los restos del antiguo puente que unía Urretxu y Zumaraga, y que fueron descubiertos con la remodelación de la plaza tras las inundaciones de 1992.

Mantxolaenea, Faktorekua, Galdosenea, son otros de los edificios de los que podremos tener más noticias. Para obtener documentación sobre los mismos Koldo ha tirado de datos extraídos de archivos como el de Oñate, Bergara y el Diocesano de Donostia.

*"Cada uno de los 15 edificios tendrá una placa explicativa junto al mismo"*

Una vez realizado el trabajo resulta fácil identificar las casas con sus nombres, pero llegar hasta ahí no ha sido tan sencillo. En el padrón de 1.860 se relacionan los nombres de las casas, con las calles y número; números que tampoco coinciden con la numeración actual. Así que ha sido un trabajo laborioso, debido a que sobre alguna de las casas como es Etxeberrienea apenas hay datos.

Con estas placas los urretxuarras tendremos más a mano un poco de historia de las casas que nos rodean y por otra parte, los foráneos obtendrán una visión global de Urretxu. Además nos remarca que se tendrá especial cuidado en no dañar la piedra de los edificios.

Ahora podemos pasear por el Casco de Urretxu y recibir una pequeña clase de historia.>

**Idoia Narbaiza**

## atzera begira

Hemendik gutxira herrian 15 plaka jarriko dira eraikin esanguratsuenen ondoan. Gehienak Gune Historikoan daude, Baroikua eta Areizaga-Kalebarren plazako zubi-branka izan ezik. Plaka horietan eraikuntzen zenbait datu emango dira: izena, ezaugarriak, eraikitako urtea, etab. Urretxuko historiari errepaso bat emateko aukera inondik inora.

udal zerbitzuak

# kontuhartzailetza, ogasuna eta gobernua

**_Desde este departamento se lleva todo lo referente a la economía municipal: control de ingresos y gastos, recaudación de impuestos municipales y en general el control del gasto público._**



Sara Arrizabalaga saileko teknikaria

1.- **SARRERA ETA GASTUEN KONTROLA, ERREGISTROA ETA KONTABILIZAZIOA**.- bakoitza dagokion diru atalean kokatuz eta bakoitzari berea esleituz. Fakturen erregistroa, ordainketa aginduak, …

2.- **DIRUZAINTZA**.- Bankuetatik iristen diren sarreren eta gastuen erregistroa. Fakturen ordainketa eta ordainketa aginduak.

3.- **DIRUBILKETA**.- Zerga-erroldetatik datozen udal-zerga eta tasa guztiak hemen kobratzen dira.

4.- **OGASUNA**.- Ogasun Batzordean dagokion ekitaldiko kitapenak aurkezten dira. Era berean, honako hauek bideratzen dira:
- zergei buruzko kexa eta iradokizunak
- hobarien eta zerga-salbuespenen eskariak
- ordainketen atzerapena

5.- **KONTUEN BATZORDE BEREZIA**.- Aurrekontu Orokorra eta horren aldaketak eztabaidatzea eta informatzea, eta oro har, Udaleko kontuetatik sortzen den guztia.>

***Irene Calvillo***

KOKAPENA: udaletxeko 2. solairua
ARDURADUN TEKNIKOA:
Sara Arrizabalaga Arbulu
ADMINISTRATIBOA:
Karmele Rezola Azpitarte
TELEFONOA: 943 03 80 87

udal erabakiak

# ACUERDOS ADOPTADOS POR la junta de gobierno local

***Miren Castillo***

## acuerdos adoptados

**23-04-2007**

**Acuerdos adoptados:**

**EIMA, S.L.: Licencia de actividad y obras para carpintería mecánica en Polígono Mugitegi, vial E nº 26**. Se acuerda conceder a Eima, S.L. licencia de actividad para taller de carpintería mecánica en Polígono Mugitegi, Vial E. Nº 26, debiendo cumplir las condiciones previamente establecidas.



**Propuesta presentadas por la Comisión de Deportes y Juventud:**



**Subvención clubes deportivos: Subvención**
Se acuerda conceder la subvención con cargo al ejercicio 2007 a las entidades deportivas siguientes:

- Urola Futbol ........................ 11.530,19 €
- Urola Balonmano ........... 6.196,15 €
- Goierri Futbol Sala ........ 6.405,66 €
- Goierri Ciclismo ............... 1.537,36 €
- Goierri Cicloturismo ...... 1.478,23 €
- Goierri Baloncesto ......... 6.947,68 €
- Goierri Ajedrez .................... 378,43 €
- Goierri Montaña ...... 2.295,98 €
- Goierri Pelota ........... 3.806,96 €
- Goierri Caza .............. 1.661,49 €
- Goierri Pesca ............. 1.748,54 €
- U.Z.Toka Taldea .......... 634,49 €
- Goierri Garaia Atletismo ............... 2.061,36 €

Se procedera al primer pago de la subvención otorgada (80 %) El resto del importe ( 20%) será abonado tras la presentación de la oportuna liquidación del ejercicio correspondiente. Que deberá ser presentada antes del 31 de octubre.




irailean...
Santa
Anastasia
JAIAK
www.urretxu.net
Urretxuko Udala